

TXILLARDEGIREN OBRAREN POLISIMIOA

Txillardegiren obra tximinologia sakon bat da, besteak beste; polisemia handiko eleberriak dira harenak, baina orobat, Joan Mari Irigoienek dioenez, polisimio handikoak. Hogei minutu oso gutxi dira halako handitasunen berri emateko, baina denbora erlatiboa da eta Joseba Tapia berriz egundoko artista.

1-ORANGUTANEN UGARTEA

Txillardegiri beti izan zaio kezka-bide, eta liluratu egin du, gizakiaren eta tximinoaren arteko muga lausoak, eta nahasketak. Ondorio larriak ere atera ditu gogoetotatik: arimaren hilezkortasunaren ezina, besteak beste.

1957koa da “Orangutanen ugartea”, gerora “Kosmodromo” ipuin bilduman jaso. Joanes marinelaen aurkezpenak abiarazten du kontakizuna. Joanes zaharra da, eskarmentu handiko gizona eta kontalari paregabea. Entzuleek istorio guztiak sinesten dizkiote, bat izan ezik: orangutanen uharteari dagokiona hain zuzen.

Behinola, ekaitz baten ondorioz, uharte hartan agertu ziren ez-ustean Joanes orduan kapitaina eta bere marinela, eta, gizakien gisara jantzirik tximino ibilera zuten izaki estraño batzuk ikusita, Joanes izutu eta alde egin zuten. Izan ere, Joanesek bazekien, jakin, gizaki izateko tximinoegi eta tximino izateko gizakiegi ziren haiek, piztien begiradaz eta begitarte iletsuz hornituriko elementu haiek, ke kirats itzela zerien dorre batzuen eraikitzaile haiek, kristau bat ikusi bezain laster erotu eta bertan akabatu arte ez zutela bakerik.

Hala ere, zenbait urteren buruan, zientifiko talde batek bidaia bat antolatu zuen orangutanen uhartera, tximinoaren eta gizakiaren arteko katebegi galduaren bila. Biziki poztu zen Joanes, halatan ordu arte kolokan izaniko haren hitzarekiko zalantzak, uxatuak baitziren behin betikoz.

Kontua da zientifikoek uhartera iritsi eta tramankulu aurreratu batzuen bidez tximinoaire bezain gizaire haien ezaugarriak ikertzeari ekin ziotela. Halako batean, testu bat aurkitu zuten. Euskaratu eta irakurri zuten marinela talde bat bertara heldu zela aspaldi. Orangutanek eraso zieten. Garbi ikusi zuten akabatuko zituztela. Orduan, deabruari laguntza eskatu zioten. Deabruak, beren arimen truke, giza barruari eutsiz orangutanen mozorrotzeko aholkatu zien, eta gizakiek aholkua bete egin zuten.

Aurrerantzean, baina, ezingo ziren gizartera sekulan itzuli eta, ifernura joan baino lehen, orangutanen adiskidetasuna beharko zuten...

Hau irakurrita, zientifikoek egiaztatu zuten Orangutanen uharteko biztanleak ez zirela tximinoaren eta gizakiaren arteko katebegi galdua, baizik eta gizakien eta orangutanen ondorengoak, katebegi galdua bezain interesgarriak zientziarentzat bestalde.

Beraz, zientifikoek bertan gelditzea erabaki zuten.

Egun batean, izaki haietako batek, ar heldu batek, pulpitu antzeko batera igo eta egundoko hitzaldi sutua egin zuen. Ondorioz, zenbait entzulek bizilagun batzuen etxeak erre eta hil egin zituzten. Sarraski itzel haren ondoren, hala ere, berriro itzuli ziren ohiko lanetara eta bolada batean lasai bizi izan ziren, harik eta hurrengo mitin hanpatuak osterasaldatu zituen arte. Eta horrela behin eta berriz.

Egun batean, orangutan bat, besteak baino ahulagoa, bizilagunen etxerik ez erretzea aldarrikatzen hasi zen, emerik ez lapurtzea, zintzotasuna, are orangutanen eskubideak; baina berehala gurutziltzatu zuten orangutan indartsuek.

Hau guztia ikusirik, zientifikoek ondorio larriak atera zituzten, eta batzuk mozkortu, beste batzuk erotu, edo elkar hil, edo beren burua hil egin zuten; bizirik gelditu zirenak orangutanen hirira jaitsi eta jo eta bertan akabatu zituzten. Bakar batek lortu zuen uharte madarikatutik ihes egin eta bere betiko giza hirira itzultzea; baina, ikusitakoa kontatzen amaitu bezain laster herrikideek hil egin zuten.

(Batek daki, pentsa liteke Joanes marinela, hain zaharra izanik –“itsasoa bezain zaharra”-, orangutanen uhartetik aurreko batean ihes eginiko beste kontalari baten hilketan esku hartua zela.)

Hara Txillardegiren lehen narrazioa, B serieko “gore” film bikain horietako bat izan zitekeena, benetan iraultzailea, Jesukristo erdi orangutan txundigarri horrekin. Kontuan hartu, berbarako, “Planet of the Apes”, “Tximinoen planeta”, 1968koa dela.

Esan bezala, gizakiaren eta tximinoaren arteko mugen edo mugarik ezaren gaineko ardurak horrek ez du Txillardegiri egundo utzi.

2-ASPIRINA

Hala eta guztiz ere, Txillardegik behin eta berriro azpimarratu duen arren gizakia funtsean ez dela tximinoa baino, edo, Joxe Azurmendiren hitzetan, gizona abere hutsa dela, 1982an Los Angelesen idatzi eta 1984an argitaraturiko “Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981”-en hitzaurrean gizakion berezitasunak zehazten ahalegindu zen. Izan ere, espezie guztiok dugu besteetatik bereizten gaituen ezaugarriren bat, errinozeroak adarra, eltxoak pelmatasuna eta abar. Gizakiok, gure aldetik, aspirinak egiten ditugu. Txillardegirentzat, gizakia aspirinak egiten dituen tximinoa da alde batetik, hau da, teknologia sortzen duena, gai dena, esate baterako, berez ez dagokion esparru batean bizitzeko. Berez lur azala baldin badagokio ere, gizakia urpean edo airean bizi baitaiteke. Bestetik, halaber, gizakiak legeak eta literatura egiten ditu, kulturagilea da.

Dena den, nola kulturaren oinarrian hala teknologiaren, hizkuntza dago, mintzamina.

Kulturaren kasuan, bistan da.

Teknologiak, berriz, gizakien arteko harremana behar du, ezinezkoa hizkuntzarik gabe. Esate baterako, aurkikuntza teknologikoak belaunaldiz belaunaldi igaroarazteko ezinbestekoa da hizkuntza.

Hortaz, jo dezagun giza animalien berezitasuna mintzaminenean datzala.

3-ADIMENA ETA BIHOTZA

Txillardegiren lanean arreta deitu dion uztartze zail bat nabaritu du berriki Koldo Izagirrek: batetik, antigutarraren sakoneko ikuskera arras da desliluratua, behin eta berriz aldarrikatu baitu ororen ezinbesteko hil beharra, edozein liluraren iragankorra eta hutsala, amets politiko-linguistikoak barne; bestetik, baina, ekintza gizon beti engaiatua duzu, euskara berreskuratzeko proiektuei arnasa eta bizia ematen diena, nolabaiteko itxaropenik gabe behintzat nekez uler litekeena.

Baina baliteke soilik lagun oso koherenteek eta oso ideologizatuek, kasurik ohoragarrietan, edo, ia beti, beren superniaren txotxongilo baino ez direnek, kontuan hartzea zer pentsatzen duten zerbait egin baino lehen.

Baliteke Txillardegiri adimenak garbi erakustea guztiaren amaikortasuna eta ezdeuskeria, orobat ahalegin politikorik zuzenena, batik bat Unibertso itzelaren denboren eta neurrien aldean, baina aldi berean bihotzak deblauki eta itsu-itsuan eskatzen dio ahalik eta egitasmorik argienak eta eraginkorrenak asmatzea eta mamitzea bidegabekeria dela kausa hil-zorian den herri baten alde.

4-DENBORA, HERIOTZA, MINTZAMENA, ASKATASUNA

Izan ere, Txillardegik ETA sortu zuen, Euskadi ta Askatasuna. (Izatez, ATA bataiatu behar zuten, Aberria ta Askatasuna, baina “Ata” bizkaieraz “ahatea” denez, pirua, azkenean ETA jarri zioten).

Edonola ere, jar dezagun arreta “askatasuna” kontzeptuan.

Denbora eta heriotza ere erabakigarriak dira Txillardegiren ikuskeran, “Huntaz eta hartaz”en eta “Haizeaz bestaldetik”-en, besteak beste, nabari denez.

Zelan uztartzen dira lau kontzeptu hauek, alegia, mintzamena, askatasuna, denbora eta heriotza?

Badoa Txillardegi gaztea arratsalde batez, Bilbon, ETA sortuko duen bilerara. Gertaera historikotzat hartzen dugu. Zergatik? Zer dugu orainaldian, gure aurrean? Gazte bat Ibaizabal ertzetik txango, historikotik ez baitu deus. Ibil zitekeen tripako min gaizto bat uxatu guran. Ordea, Txillardegik etorkizunerako asmo bat du gogoan, Euskal Herri euskaldun bat funtsean. Hori enpirikoki ez da inon ageri, ez baitago Txillardegiren adimenean baino.

Hala ere, izan liteke txoro bat Bilbon barrena, amets berdinez, txango dabilena. Zerk bereizten ditu? Txillardegik bere proiektua gauzatzen saiatuko den mugimendua abian jartzeko ahalmena duela, eta txoroak berriz ez. Txillardegiri bere iraganak eman dio ahalmen hori: euskaraz ikasi du, harremanak egin ditu, busti egin da. Iragan horrexek ahalbidetuko du berrogeita hamarreko hamarkadako arratsalde honetan proiektu huts baizik ez dena noizbait orainaldiko mugimenduan mami dadin, errealitate bilaka dadin: euskara batua, ikastola, literatura moderno bat, euskararen

aldeko politika bat. Bistan da, geroaldi-iragan-orainaldi norabidea duen denbora duzu giza denbora.

Gauza bizigabearen ardatza, berriz, oraina da, agerpen hutsa baita funtsean. Eta landareena zein animaliena, bizidunena, azkenik, iragana, genek determinatzen baitituzte, arbasoek eginikoa errepikatzen mugatzen baitira.

Gizatasunak, hortaz, etorkizuna du abiaburu.

Hain zuzen, Txillardegi filosofo existentzialistekin bat eginik agertu zen euskal letren plazara, esentzialistak kritikatu. Esentzialistak karlistak eta liberalak ziren, jeltzaleak, euskal baserri xuri garbia berpiztu nahi zutenak, arima iraganeko Arkadia batean iltzaturik. Txillardegik ostera Euskal Herri berri baten etengabeko sorkuntza proposatuko du, baina, hori bai, iragana kontuan hartuz, eta ez, utopistek eta “Haizeaz bestaldetik”-en “iraurtzaile” deitu zituenak bezala, iraganaren bitartekotza dekretuz desagerraraziz.

Beraz, mintzo den animalia dago funtsean gerora zabalik. Baina etorkizunean, ezinbestean, heriotza dugu. Txillardegik maiz azpimarratu du nahitaez hil behar hori bere latzean goitik behera onartu gabe ez dagoela inongo jakinduriarik, ezta zentzun txikiarik ere. Derrigorrez egingo du gureak eta maiteen dugunarenak. Ez dago ihesbiderik. Egia gogor hori kontuan harturik antolatu behar dugu gure bizialdi amaikorra.

Alabaina, heriotza funtsean dago mintzamenari loturik, denbora bezala.

Adimenak, zerbait ulertuko badu, zerbait hori hil egin beharra dauka. Usu dakar Txillardegik ideia hau: “hila bilatzen du pentsamenduak, biziak ihes egiten baitio” (“Gertakarien lekuko”, 76). Edota: “Tinkatuz eta geldi-araziz lan egiten du adimenduak. Bizitza ulertzeko gai ez da; eta hila nahiago du, aisago darabilelako. “Hildakoa maite du ulermenak”, zioen Unamunok” (“Leturiaren egunkari ezkutua”, 129)

Larridura metafisikoari loturik aipatzen badu ere testuinguru horretan, Sarrionandiaren galdera honekin ere erlazioa dezakegu, bortxa handirik gabe: “errusinol” hitzak hegatzeko egin dezake? “Errusinol” hitzak kanta dezake?

Dirudienez, ezin du. Pintto zakur erreala zaunka egiten du, jauzi, jan. “Pintto” hitzak ordea ez. Zakur erreala hilik da “zakur” kontzeptuan. Badena mintzora igaroaraztean, baden hori hil egiten dugu. Eta, egia bada ere zakur bat ezagutzeko ez dugula zertan hil dadin arte itxaron behar, egia da orobat zakurraren ezagutza zientifikoak azken batean haren disekzioa eskatzen duela.

Hizkuntzak, bestalde, Txillardegik azpimarratu duenez, arbitrarioak dira. Edozein gauza edonola izenda genezake, ez dago ezinbesteko loturarik hitzaren eta gauzaren artean. Horren erruz tronpatzen gara (*errare humanum est*), baina horri esker dugu halaber naturaren aurrean nolabaiteko askatasuna. Naturak hein batean baino ezin baitieziaioke aurre egin giza adimenaren eta irudimenaren ahalari.

Halatan, mintzamenak ahalbidetzen digun askatasunari esker egin diezaiekegu aurre egoera bidegabeei. Ez gutxitan naturalizat saldu nahi izaten dizkigutenak barne. Euskarak kausa naturalengatik egin du atzera, dioskute. Txillardegiri esker, besteak beste, berehala itzultzen ikasi dugu: etsaien mespretxuarengatik, inkisizioarengatik, okupazio militararengatik eta gure utzikeria eta ganora eskasarengatik egin du atzera: horra giza naturaleza.

5-ELEBERRIAK

Hain zuzen, oinarri filosofiko hau bat dator Txillardegiren sei eleberrietako hainbat ezaugarriekin. Esate baterako, eleberri guztiak abiarazten ditu indarrean dagoen giro bati protagonistak eginiko ukoak, pasiboki jasoriko egoerari ezetzak: adiskide taldeari Leturiak, lantokiko agindu-emaileari Peruk, ezkon bizitza gezurtiari Elsak, irudimenezko eternitateari “Haizeaz bestaldetik”-en protagonistak, sorleku arrotzu eta zafratuari Exkixuk eta eraso politiko-militarrari Putzuk. Ez, ez, eta ez. Banoa hemendik, ni ez naiz hemengoa, utikan. Gure kulturaren, ukatzailerik ospetsuena, Txillardegiren pertsonaien arbasoa, Satanas duzu, Jainkoaren inguruko zurikeriaz nazkaturik erori baitzen. Pertsonaiok ez dute onartzen, ezin dute onartu, egoera bidegabeetara nolabait moldatzeko joera, erosotasuna helburu injustiziarik ez-ikusia egiteko jukutria, edo nolabaiteko injustizia beharrezkotzat jotzeko aitzakia. Adan eta Eva ere oharkabetasun bare bozkariatsu batek bizi zituen. Txillardegiren eleberrien hasieretan, pertsonaiak, sugearen sagarrari haginka egin ostean, badoaz inkontzientziaren paradisuetik egotzita haluzinaziora, borrokara, mozkorrera, bakardadera, piluladikziora, heriotzaren nagusitasun eta ezinbestekotasun itzela gutzian eta funtsean sentitzera.

6-TXIMINOIA BERA MINTZO

Txillardegik ez ditu arazoak ezkututzen, ezta mozorrotzen ere. Lehen mintzamina jo dugu giza berezitasuntzat. Hala ere, “Mintzamina gizonetik at”-en (UZEIren “Hizkuntzalaritza” hiztegioko artikulua bat da eta 1978an idatzi zuen Txillardegik) auzia bere gordinen dakar: mintzamina baldin bada gizatasunaren funtsa, gizaki ote dira gormutuak? Zeinuak darabiltzate. Baina gormutuen zeinu sistema hori hizkuntzatzat onartzen badugu, orduan ez dago tximinoaren eta gizakiaren arteko inongo alderik. Izan ere, tximinoek ausarki erabiltzen baitute “Ameslan” delakoa, “American sign language”.

Hasiera batean, primatee ahozko hizkera irakasten ahalegindu ziren Amerikako Estatu Batuetan. Baina 1916an orangutan eme bati “papa” eta “cup” esanaraztea baino ez zuten lortu, eta 1951an, Hayesek, sei urtez ahalegindu ondoren, “Viki” txinpantzeak “mama”, “papa”, “cup” eta “up” esatea besterik ez, eta gainera “with a heavy chimpanzee accent”.

Porrot horretaz jabeturik, Gardner bikoteak tximinoei Ameslan edo gormutu amerikanoen hizkera irakasteari ekin zion, arrakasta deigarritz.

Txinpantzeek ezetza, galdera, izena, aurrizki eta atzizkia eta baldintza erabiltzen erraz ikasten dute. Baita hitz berriak ere, gai dira ehundaka hitz zuzen-zuzen erabiltzeko.

Gardnertarrek izan zuten lehenbiziko txinpantzeak, adibidez, Washoe emeak, 51 hilabete haiekin eman ondoren ehundaka hitz ulertzen eta erabiltzen ikasi zuen. Halaber, garbi erakutsi zuen bere buruaz ohartzen zela. Susanek galdetu zion: “Nor da hori?” Erantzuna: “ni”; eta geroxeago: “Ni Washoe”.

Hamar bat zeinu ikasi zituenerako, bi eta gehiago elkartzen hasi zen, testuinguru egokietan. Esate baterako, “tickle me” (egizkidazu kili-kiliak) edo “key open please blanket” (eman giltza

irekitzeko eta tapakia hartzeko) edo “you me go-out there hurry” (eraman nazazu azkar kanpora).

Bestalde, esanahia zabaltzeko gaitasuna ere erakutsi zuen. Gardnertarrek “open” hitza erakutsi zioten, ate, armairua, tiradera eta antzekoen irekitzea adierazteko. Baina Washoek bere kabuz iturri irekitzea adieraztera ere zabaldu zuen.

Hasieran usaina adierazteko “flower” hitza baino ez zuen ezagutzen, eta edozein usain zen “flower”. Ordea, “smell” ikasi zuenez geroztik, “flower” lore usaintzat gorde zuen, eta “smell” beste guztientzat.

Hitz berriak sortzeko ere gaitasun harrigarria erakutsi zuen Washoek. Esate baterako, ahateak ikusi zituenean, “ahate” hitza ezagutzen ez zuenez, “water bird” bataiatu zituen, hau da, ur-txori.

Washoe, eta gerora “Ameslan” hizkera ikasi duten beste txinpantzeek ere, zein bere aldetik, inork zirikatu gabe, bakarka, hitz egiten dute, oheratzerakoan esate baterako aldizkari bati begiratzen dioten bitartean. Gizakiei, zakurrei, katuei eta beste tximinoei ere hitz egiten diete.

Washoe, dena den, ez da Gardnertarren lagun bakarra izan. Moja txinpantzeak oso gustuko du marraztea. Egun batean, zirriborro bitxi bat egin zuen. Gardner batek “Segi aurrera!” agindu zion. Mojak arrapostu “Bukatua.” “Eta zer da?” “Txoria”.

Txillardegiren iritziz, Mojaren marrazkiak ez du txori-eite handirik, baina guk ikusi ez dugunez Txillardegiren hitza dugu Mojaren hitzaren aurka. Edonola ere, Mojaren ziurtasuna gertatzen da deigarri, eta elkarrizketa bera.

Hiru urte zituelarik, Gardner batek, beste marrazki baten aurrean, Mojari galdetu zion: “Zer hori?” “Belarra.” “Nork marraztu hori?” “Mojak”.

Bada beste ikerlari bat, Fouts izenekoa, txinpantzeek esaldiak itzul ote ditzaketen aztertzen ari dena, alegia, ingelesez entzun eta Ameslanez erantzun. Eta Ally txinpantze ar elebidunak oso itzultzaile dotorea dela frogatu dio. Lucy emeak, berriz, esaldi berriak asmatzeko orduan erakutsi du gaitasun berezia. Eta Booce eta Bruno arrak hasiak dira elkarrekin hizketan. Kasurako, Bruno jaten ari dela, Booce-k diotso: “egin kili-kili”. Brunoren erantzuna: “Booce, nik jan”.

Bai Washoe eta bai Lucy txoil berritsuak dira. Foutsekin izan dituen 267 elkarrizketetatik ehuneko 77 Lucyk hasi ditu. Eta Washoek oraindik gehiago: ehuneko 80.

Txillardegik nabaritu du datu hauek, Darwinen ikuspuntuaren antzera, aurkako joera gaitza eragin dutela, gizakiari zaila egiten baitzaio jainkotiar, berezi eta guztien buru izateko eskubidea uztea. Baina Txillardegirentzat gizakiok funtsean ez gara abere hutsak baino.

7-TXIMINO EUSKALDUNA

Historia aztertutik bistan da anabasa, txiripa, grina eta hondamendia izan dela nagusi, historialarien ahaleginak gorabehera arrazoiak, joerak eta hariak aurkitzeko zein asmatzeko.

Hala ere, zenbaitetan ematen du hitza batera ala bestera erabiltzea garrantzitsua izan dela Historian, ondorio sakonak izan dituela; bestalde, ondoriorik sakonenak, kasu bitan bederen, ez ditu hitzen erabilera harrigarriren batek eragin, baizik gizakiok betidanik dakiguna zehazteak, Pernandoren egiei erne erreparatzeak.

1-Lehenbiziko kasua: garai batean, oro har, uste zen izaki bat aldi berean beste bat ere izan zitekeela, gizaki bat aldi berean oilo, berbarako, edo tximino. Halatan, uste zen aztiak gizakia tximino bilakaraz zezaketela, substantzia bereziak irentsi ondoren “artxila murtxila!” oihukatu eta gorputz atalak bortizki astinduz tximinoaren arima gizakiaren baitan sar zezaketela. Haitin eta Brasilen, besteak beste, bizirik daude halako ikuspuntuak gaur egun ere.

Edozein gisaz, aurreneko filosofo grekoek adierazi zuten burubidea nagusitu da munduan: gizakia gizakia da, eta ezin da aldi berean tximino ere izan. “Kontraesanezko hastapena” deitu zaio honi, baina, hain inportantea denez, baita “Ez-kontraesanezko hastapena” ere.

Ondorioei dagokienez, askoz ere eraginkorragoa izan da grekoen ikuskera garai magikoetako aztiena baino: “tximinoa tximinoa da” perpausa oinarri duten zientziak eta teknikak lorturikoa miragarriagoa da magorik abilenak oneski agin lezakeena baino. Mendebaldeko gizarteetan, guk dakigula bederen, Txillardegi bezalako poetek atxiki dute gizakia tximino eta tximinoa gizaki bilakarazteko ahala.

2-Orobat, bigarren kasua: “euskaldun fededun” aldarrikatzen zen behinola, edo euskaltasunaren funtsa kokatzen zen arrazan, foruetan, historian, deiturretan eta auskalo-mortun.

Halako batean, haatik, Txillardegik egia apal bat azpimarratu zuen, beti bertan eskura izana zelako inork merezi bezala nabaritu gabea: “euskalduna euskaldun” (*Huntaz eta hartaz*, Elkar, Donostia, 74. or.) Hots: deiturak, historiak, foruak eta arrazak gorabehera, euskarak, ez bestek, egiten gaitu euskaldun.

Eta tautologia xume bezain mamitsu hori askoz ere sustatzaileagoa izan da eta izango, euskaldunaren funtsa beste ezerekin berdintzea baino

Izan ere, halako definizio xumea behar genuen edonori emateko euskaldun izateko aukera, are giza enda gaintuz: tximino batek euskarazko zeinu hizkuntza ikasiko balu geureago genuke edozein abertzale erdaldun baino.

8-PROPOSAMEN BAT, IRAUN DEZAGUN

Jendeak ez du euskaraz espero adina ikasten. Estatistikek gora egiten dutenean, pixka bat baino ez dute egiten; behera, aitzitik, ezin biziago.

Kontua da gizakiei onartzen diegula hiritartasuna, gizakiak baino ez ditugula zenbatzen estatistiketan.

Eta gizaki hutsekin, dirudiencez, ez dago zereginik, pikutara doake euskara. Ikaragarria da, kasurako, erdararen nagusitasuna hedabideetan.

Dena den, Txillardegiren gogoetek bestelako ate bat ireki diote esperantzari.

Gaurdaino, erdi onartutzat-edo jo dugu gizakia gainerako animaliangandik bereizten duena teknologia eta kultura dela, eta bion oinarrian mintzamina dagoela.

Mintzodunei ematen diegu hiritartasuna, mintzodunak sartzen ditugu estatistiketan.

Gormutuak barne, jakina. Ahozko hizkerari ez diogu ezein gailentasunik aitortzen.

Horra hor gakoa. Txillardegik usu nabaritu du, batetik, gizakion funtsezko aberetasuna; bestetik, tximinoen gaitasuna gormutuen zeinu-hizkuntzak ikasi eta erabiltzeko. Honen berri ez duenak benetan txunditu nahi badu, irakur dezala UZEIren “Hizkuntzalaritza” hiztegiko “Mintzamina gizonetik at” artikulua.

Washoe, Moja, Lucy, Bruno primateak ezagutuko ditu bertan, “Ameslan” (American Sign Language) delakoaz mintzo, hots, AEBetako gormutuen zeinu-sistemaz, ehundaka hitz erabiliz, hitz berriak sortuz (Washoek ez zuen “ahate” hitza ezagutzen, eta ahate bat lehenbizikoz ikusi zuelarik, “water bird” bataiatu zuen, “ur txori”), txinpantze elebidunak ahozko ingelesa entzun eta “Ameslan”era itzuliz...

Alegia, gizakion eta tximinoen artean ez dago alderik. Mintzamenaren aitzakiarenarekin batera, gure berezitasunarenak ere egin du.

Zeregin garrantzitsu bat dugu aurrerantzean euskaltzaleok: milaka tximino erosi, “Ameslan”en pareko “Euze hizk” (Euskarazko zeinu-hizkuntza) bat sortu (konplikatuagoa izan zen euskara batua), tximinoei irakatsi eta ondoren tximino euskaldunok ere estatistiketan zenbatuak izan daitezten erdietsi, hedabide erdaldunek arrotzu ditzaten baino lehen. Gainera, auskalo, baliteke gizakiok bezain traidoreak ez izatea hedabide arrotzetara lerratzeke orduan.

Txillardegiri eskertu behar diogu aukera itxaropentsu honi ere bide teorikoa zabaldu izana.